

EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAK, 2026ko BIGARREN SEIHILEKOAN BILTZARRAK ANTOLATZEKO

Eskaerak aurkezteko barne epea 2026ko ekainaren 23ra arte egongo da zabalik.

Helburua

2026ko **bigarren seihilekoan** Euskal Autonomia Erkidegoan ikerketa biltzarrak eta bilkurak antolatzeko laguntzaren deialdia egitea. Kongresu eta bilerak **2026ko ekainaren 1etik abenduaren 31ra** bitartean egin beharko dira.

Eskaeren aurkezpena:

Aplikazioaren bidez telematikoki eskuratu ahal izango den formularioaren bidez bete beharko dira:
ESTEKA

Eskaera bete ondoren, **sinatuta bidali behar duzu UPV/EHUren adierazpena igz.ikerketalaguntzak@ehu.eus** helbidera. Eskaera egiaztatu eta adierazpen hori jaso ondoren, UPV/EHUko legezko ordezkariak sinadura elektronikoa emango du. **Sinadura hori gabe eskaera ez da erregistratuta geratuko.**

Laguntzen gehieneko zenbatekoa:

Biltzarra	Nazioartekoa	20.000 euro
	Estatukoa	10.000 euro
Bilera zientifikoa	Nazioartekoa	7.500 euro
	Estatukoa	4.000 euro

Deialditik kanpo geratzen diren ekintzak:

Deialditik kanpo geratzen dira nagusiki prestakuntzakoak diren ikastaroak eta jarduerak, hala nola prestakuntza-jardunaldiak, irakasleak eta ikasleak trebatzeko tailerrak eta mintegiak, doktoregoko, masterreko eta/edo graduondoko programekin lotutako bilerak, etengabeko prestakuntzako jarduerak, ate irekien jardunaldiak eta ikerketa zientifikoaren eremuarekin zuzenean lotuta ez dauden jardunbide egokiak bateratzeko jardunaldiak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak:

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak	Biltzarra	Bilera zientifikoa
Ekitaldia antolatzea	X	X
Jardueraren zabalkundea eta argitalpena	X	X
Hizlarien bidaiak, ostatua eta mantenua	X	X
Hizlarien haborokinak	X	X
Ikertzaile gazteen inskripzio-kuotetako hobariak	X	X
Ikertzaile gazteen bidaia eta ostatua	X	X
Sariak	X	

Eskatutako dokumentazioa:

1. **Jardueraren memoria zientifikoa, pdf-an.**
2. **Eskatzen diren funtsen justifikazioa:** kontzeptua, unitateak, destinoak, kostuak eta aurrekontuak zehaztuz. Diru-sarrerekin batera eskatutako funtsek ez dituzte inoiz gastuak gainditu behar. Plataforman eta txantiloian adierazten diren kopuruek bat etorri behar dute (aplikazioan aurkituko duzu txantiloia). Igo beharreko dokumentu hau ez da beharrezkoa legezko ordezkariak sinatzea, baina Ikertzaile Nagusiak sinatu behar du.
3. Laguntza eskatzen den ekitaldiaren antolaketa onartzen duen **Sail Kontseiluaren edo Batzordearen akta.**
4. **Hizlari/ponentearen parte-hartzearen sinatutako agiria.** Eusko Jaurlaritzak emandako txantiloia aurkeztu behar da, hizlari bakoitzak beteta eta sinatuta, ahal dela digitalki. Ez bidali dokumentua eskaneatuta, ez da onartuko. Dokumentu bat hizlari bakoitzeko.
5. **Erantzukizunpeko adierazpena.** 5.6.b artikuluan adierazitako laguntza eskatu edo eman dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar da:
 - "Dirulaguntzen" kasuan, emandako zenbatekoa adierazten duen **ebazpena** aurkeztu beharko da, edo, hala badagokio, deialdira aurkeztutako **eskabidea**.
 - "Beste diru-sarrera batzuk" izanez gero, biltzarra kofinantzatzeko konpromisoa hartzen duen agenteak **sinatutako gutuna** aurkeztu behar da, emandako zenbatekoa adierazita.

*** OHAR GARRANTZITSUAK:**

Horrela, **DIRU-SARREREN** atala honela bete beharko litzateke:

- Inskripzio-kuotak: izen-emateagatik diru-sarreraren aurreikuspena
- Emandako edo eskatutako dirulaguntzak.
- Beste diru-sarrera batzuk: babesak, dohaintzak...

Laguntza honek, emandako zenbatekoaren **hirukoitza** justifikatzeko betebeharra dakar (**Eusko Jaurlaritzak biltzarrean zehar baimendutako kontzeptuetan eginiko gastuen herena soilik ordaintzen du**). Gainerako 2/3 kofinantzatzeko, ezingo da Eusko Jaurlaritzako ikertaldearen dirua erabili.

Beraz, **kontzesioaren ondoren, kreditua erreserbatuta geldituko da. Unibertsitateko organiketan** beste finantziario iturri batzuk jaso ahala, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzaren alde proportzionala askatzen joango da.

****** UPV/EHU n sartzen ez diren beste finantzaketa-iturriak (babesak, dohaintzak, inskripzioak...) ez dira kontuan hartuko aurrez aipatutako 2/3ak kalkulatzeko.

******* Ekitaldiaren antolakuntzan laguntzeko enpresaren bat kontratatzekotan, Ikerketaren Gestio Zuzendaritzak ez du ziurtatuko hirugarren honek egindako gastuak, nahiz eta hautagarritzat jo daitezkeen haiek eginikoak. Ez dira kontuan hartuko aurrez aipatutako 2/3ak kalkulatzeko.

Erakundearen datuak:

Erakundearen (UPV/EHU) datu hauek behar dira eskaera betetzeko:

- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, zk.g.
- **Posta kodea:** 48940
- **Herria:** Leioa (Bizkaia)
- **Legezko ordezkaria:** Jon Umerez Urrezola
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea

Formularioan honako hau adierazi behar duzu:

Organo kudeatzaileari ematen diola zerga-eginbeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, uztailaren 21eko 887/2006 errege dekretuak 18. eta 19. artikuluetan xedatutakoaren arabera, bete izana egiaztatzeko baimena. **BAI**

Berdintasun-plan bat indarrean dauka, estatu-araudiaren arabera halakorik izatera behartuta badago. **BAI**

Estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasun esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezarri ditu, 50 langiletik gora izanez gero. **BAI**

Harremanetarako datuak:**UPV/EHU:**

Ikerketa laguntzak

igz.ikerketalaguntzak@ehu.eus

Eusko Jaurlaritza:

945 01 8000